

IRAKASKUNTZA-GIDA

2024/25

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25786 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Historia

ECTS kredituak:

6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgaiak jarduera fisikoak praktika sozialaren eremu bezala aurkezten dizkie ikasleei, haien egungo konfigurazioan eragina duten prozesu historikoen ezagutzatik abiatuz. Aro gaurkideko mende baldeko Europan zentratzen da, baina jarduera fisikoen historia orokorra ere jorratzen da. Lagungarria da ikasleek uler eta balora ditzaten jarduera fisikoen dibertsitate eta eboluzioa, garaian garaiko gizarte aldaketa orokorrekin lotuz. Gainera lagundu egiten die ere eboluzio hori publiko ezberdinei, adituei zein aditu ez direnei, azaltzeko gaitasuna garatzen.

Irakasgaia ikasketa planaren M01 "Giza motrizitatearen portaera eta gizarte oinarriak" moduluaren osagaia da. Gizarte eta Legedia zientzien adarraren oinarritzko irakasgaia da, eta bereziki lotuta dago modulu bereko Jarduera fisikoen Soziologia eta Jarduera Fisikoen Hezkuntza irakasgaiekin.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IRAKASGAIAREN BERARIAZKO GAITASUNAK (JORRATU ETA EBALUATZEN DIRA):

CE1. Jarduera fisikoen eremuaren garapena gauzatu duten prozesu historiko nagusiak identifikatu eta ulertzea, gizartearen aldaketa orokorrekin duten erlazioaren bitartez azalduz.

CE2. Informazioa lortzeko, kudeatzeko, ulertzeko eta lantzeko gai izatea, jarduera fisikoen historiari buruzko prozesu historikoak ezagutarazteko, bai publiko adituari, bai eta aditua ez denari, testu-prozesadore batekin idatzitako txosten akademikoen bidez, bai eta ikono- eta ikus-entzunezko euskarriekin lagundutako ahozko edo idatzizko azalpenen bidez.

CE3. Informazioa eskuratu, ulertu eta elaboratu, jarduera fisikoei buruzko prozesu historikoak publiko aditu eta ez adituari ezagutzera emateko, testu prozesazailez idatziko txosten akademikoen eta irudi eta ikusentzunezko euskarrien bitartez.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

G017 - Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko literatura zientifikoa ulertzea, bertako hizkuntzetan eta zientziaren eta teknologiaren esparruan erabiltzen diren beste hizkuntza batzuetan. Landu, ebaluatu eta kalifikatzen da.

G018 - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) JFKZren esparruan aplikatzen jakitea. Landu, ebaluatu eta kalifikatzen da.

IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK:

- Ikaslea jarduera fisikoak historikoki baldintzatzen dituzten eragileak identifikatu eta analizatzeko gai izango da. Era berean, eragile horien garrantzia erlatiboa bereizteko gai izango da. Hori guztia diziplinean eragina duten ikuskera teoriko ezberdinetatik.

- Ikaslea eragileek jarduera fisikoak historikoki nola baldintzatzen dituzten ahoz eta idatziz azaltzeko gai izango da, lanak egiten, ahozko aurkezpenak egiten eta azalpen-, argudio- edo analisi- galderei erantzuten. Lan, aurkezpen eta erantzun horiek guztiak informazio egokian oinarritu behar dira, zehaztasun maila egokia izan behar dute, kontzeptu-argitasuna, egituraketa eta ordena islatu behar dute, arguditazeko eta sintesiak egiteko gaitasuna eta edukiak testuinguru historikoan jartzeko gaitasuna demostratu behar dute, eta formato zaindua izan behar dute (itxura, irakurgarritasuna, ortografia, aipu eta erreferentzia sistema...)

- Ikaslea gai izango da jarduera fisikoen eta praktiken historiari buruzko informazioa bilatzeko eta kudeatzeko, jardueri buruz dituen ezagupen teorikoekin erkatuz.

- Ikaslea gai izango da jarduera fisikoen historiaren ikuspegiren bati buruzko sakontze-lan bat egiteko eta emaitza irakurle adituei zein entzule ez adituei azaltzeko.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

0. Sarrera: Irakasgaiaren gaitasun eta helburuak.

1. Historiaren kontzeptua. Jarduera fisikoen historia tradizionala eta kritikoa. Jarduera fisikoa eta gizarte-praktika.

2. Jarduera fisiko modernoaren garapena Europan, Espainian eta Euskal Herrian.

- 2.1. Kirol joko tradizionaletik kirol modernora. Kirolaren garapena Ingalaterran. Jarduera fisikoak Europan, Espainian eta Euskal Herrian XIX. mendean.
- 2.2. Kirol kulturaren sarrera eta finkapena Europan, Espainian eta Euskal Herrian.
- 2.3. Jarduera fisiko-deportiboen garapena eta masa gizartea (1914-1940)
- 2.4. Kirol eredua bigarren Mundu Gerraren ostean. Jarduera fisikoak Espainian eta Euskal Herrian gerraostetik ekonomiaren garapenaren aldira arte (1939-1960)
- 2.5. Jarduera fisikoak garapen ekonomikoaren aldian. Jarduera fisiko eta deportiboak Espainian eta Euskal Herrian garapen ekonomikoaren alditik frankismoaren bukaera arte (1960-1975)
- 2.6. Kaliforniako jarduera fisikoen eredua eta kirol aisialdiaren hedapena. Jarduera fisikoak Espainian eta Euskal Herrian frankismoaren amaieratik Bartzelonako Joko Olinpikoetara.
- 2.7. Egungo joerak: kirolaren globalizazio eta merkaturatzea.

3. Heziketa fisikoaren historia.

- 3.1. Heziketa fisiko modernoaren sorrera.
- 3.2. Gimnastika nazionalistak XIX. mendearen lehen erdialdean.
- 3.3. Eskola eta gimnastika. Gimnastika analitikoen hedapena eta gimnasio burgesen hedapena (XIX. mendearen bigarren erdia)
- 3.4. Heziketa fisikoaren dibertsifikazioa
 - 3.4.1. Esperimentalismo fisiologikoa. Entrenamenduaren eredua.
 - 3.4.2. Kirola eta jokoa, gimnastikaren disziplinarismoaren aurrez aurre.
 - 3.4.3. Eskolaren modernizazioa: eskolako higienetik heziketa integralera.
 - 3.4.4. Naturalismoa: gimnasia naturala, eskultismoa, eskolako koloniak.
 - 3.4.5. Heziketa fisikoa erregimen erregimen totalitarioetan.
- 3.5. Heziketa fisikoaren korranteak XX. mendeko bigarren erdian.
- 3.6. Heziketa fisikoaren gaur egungo joerak.

Gai praktikoak:

- 4. Bibliografia bilaketa. Informazioaren kudeaketa, irakurketa eta erabilera lan akademikoak egiteko. Erreferentzia bibliografikoen kudeaketa(Refworks edo Mendeley. Weborriak biltzea, sailkatzea eta oharrak gehitzea.
- 5. Agiri akademikoen betebeharrak formalak eta testu prozesatzaileen bitartez idaztea. Aipuen eta erreferentzia atalaren elaborazioa APA arauen arabera.
- 6. Jarduera fisikoen historiaren inguruko gai garrantzitsuak aditua den publikoari eta ez denari azaldu eta balioaraztea, horretarako testu, irudi eta ikus-entzunezko materialak sortuz.

METODOLOGIA

- A- Heziketa fisiko modernoaren garapenari buruzko gaiak klasean azaldu eta landuko dira, azalpen teorikoen, metodologia kooperatibo ezformalaren eta alderantziko gelaren bitartez. Ikasleek azalpenak jaso, materialak aztertu eta galderei erantzungo diete. Autoebaluazioa eta pareen arteko ebaluazioa formatiboa erabiliko da, gaiei buruzko galderei erantzuteko edo testu edo irudien iruzkin historikoak egiteko. Hala ere, kalifikazioari begira, ikasitakoaren ebaluazioa proba idatzien bitartez egingo da, galdera laburrei, azalpen-galderei edo klasean landutako galderei, testu edo irudiak komentatzeko eskakizunei edo antzerakoei erantzunez.
- B- Ikasleek talde txikietan banatuko dira eta jarduera fisikoen historiari buruzko proiektu bat egingo dute. Lana Proiektuen Oinarritutako Irakaskuntza Kolaboratiboan (IKD-PBL) oinarrituko da.
- C- Gai praktikoak, metodologiari buruzkoak, informatika gelako saioetan landuko dira, azalpen eta ariketen bitartez, eta proiektuaren bitartez zein proba idatzien bitartez ebaluatuko dira. Proiektuan erabiliko dira eta haien bitartez landuko da IKT-en erabileraren inguruko konpetentzia (G018)
- D- Ikuspuntu historiografikoari, kiroltzeari, kirol modernoaren garapenari eta kirolaren Espainiako eboluzioari buruzko gaiak agiriaren analisiaren bitartez landuko dira, eta proiektuaren zein proba idatzien bitartez ebaluatuko dira. proiektuan erabiliko dira eta haien bitartez landuko da irakurketa zientifikoaren inguruko konpetentzia (G017)

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		10		5				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		15		7,5				

Legenda:

M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZERO izango da (SUSPENTSOA).

EBALUAZIO JARRAITUAREN SISTEMA.

- Euskal Herriko Jarduera fisikoen historiari buruz lankidetzan oinarritutako talde-egitasmoa (IKD-PBL) gauzatzea: entregagaiak (%10), azken txostena (%30), azken aurkezpena (%10, nota honen zati bat ikaskideen arteko elkar-ebaluaziotik etor daiteke).

Denetara, beraz lanaren balioa notaren %50a da (entregagaiak %10, txostena %30, aurkezpena %10).

- IKT-en erabilera eta aipu-erreferentzien sistemaren erabilera: ordenagailuko zein paparezko ariketak eta galdera laburrak (%10).

- Kiroltzeari, Kirol modernoaren historiari eta Espainiako eta Euskal Herriko kirolaren garapenari buruzko proba idatzia(k) (%20)

- Heziketa fisiko modernoaren historiari buruzko proba idatzia(k)(%20)

Denetara, beraz, azterketek notaren %50a balio dute (%10 + %20 + %20)

Beharrezkoa izanez gero, kirolaren historiaren inguruko zatiak zein eduki praktikoak lanaren txostenaren bitartez ere ebaluatu daiteke.

Eskolak prestatzeko aldez aurretiko zereginak egitea aste bakoitzeko 0,07 puntuekin saritu daiteke, baldin eta eskatzen diren eta ondo egiten badira.

Oharrak:

1. Proba eta entregagai guztiak dira derrigorrezkoak.
2. Gutxieneko notak: Proiektuaren nota orokorrean zein azterketen batz-besteko haztatuan, bietan gutxienez 5 puntu lortu beharko dira. Bestela irakasgaiaren nota gehienez 4,9 izango da.
3. Azterketetan galdera edo zati bakoitzean gutxienez 3 puntu atera behar dira, hamarren gainean. Ez badira lortzen, azterketaren gehienezko nota 4,9 puntukoa izango da, eta azterketa ez gainditua kontsideratuko da. Ondorioz, irakasgaiaren nota gehienez 4,9 izango da.
4. Ebaluazio jarria hautatzen duten ikasleak ezingo dira azken azterketara aurkeztu, ez badiote ebaluazio etengabeari uko egiten epe barruan eta idatziz.

Proba idatzia eta proiektuaren azken aurkezpena irakaskuntza-aldian egiteko asmoa badago ere, baliteke azken proba edo aurkezpena azterketa garaian egin behar izatea. Proben datak aldez aurretik argitaratuko dira irakasgaiaren gela birtualean.

G017 zeharkako gaitasuna (literatura zientifikoaren irakurketa) proiektuaren eta erreferentzia eta aipuen proba baten

bitartez ebaluatuko da.

G018 zeharkako gaitasuna lankidetzan oinarritutako egitasmoaren bitartez eta proba baten bidez ebaluatuko da, Informazio eta Komunikazio Tekniken erabilera neurtuz.

Ebaluazio jarraituari uko egitea:

Ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du, ikastegiko eskola egutegiaren arabera lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita (data zehatza irakasgaiaren gela birtualean argitaratuko da). Bestela, ezingo du azken ebaluazio sistema erabili.

AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA:

Lehendabiziko bederatzi asteetan ebaluazio jarraituari uko egiten diotenek azken proba bat egin behar dute, irakasgaiaren ehuneko ehunez ebaluatuak izateko.

Proba edukien ezagutza eta ulermenean zein irakasgaiaren gaitasunetan oinarrituko da. Proba test moduko galderez, galdera laburrez, azalpen- eta argudio-galderez, testu edo irudien iruzkintzeko eskakizunez eta proba praktikoez osatuta izan daiteke, ebaluazio jarraitua jarraitu duten ikasleek landutako ezagutzak eta gaitasun berberak ebaluatu ahal izateko. Azterketa proba ezberdinek osa dezakete, eta baliteke probaren zati bat ordenagailu gelan egin behar izatea, ariketa praktikoa bezala. Proba luzea izango denez, saioen ordutegia argitaratuko da.

Azterketan, eduki praktikoen artean, egitasmoaren edozein zatia azaltzea eskatu daiteke. Hori dela eta, ikasle hauei gomendatzen zaie ebaluazio sistema jarraituan eskatzen den proiektuaren antzekoren bat prestatzea. Edozein kasuan, proiektu originala izan behar da, ikasleak berak prestatua.

DEIALDIARI UKO EGITEA:

- 1.Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.
- 2.Ebaluazio etengabeari garaiz eta idatziz uko ez dioten ikasleek deialdiari uko egiteko, idatziz adierazi beharko dio irakasleari irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino lehen. Kasu honetan ez zaizkie gordeko ezohiko deialdirako gaitututako proben edo lanen notak.
- 3.Ebaluazio etengabeari uko egin dioten ikasleen kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- Irakasgaia ohiko deialdian gaitututuz ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.
- Etengabeko ebaluazioa jarraitu duten ikasleek, ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak (bost puntu edo gehiagorekin) gordetzeko aukera izango dute eta ohiko deialdiko ebaluazio irizpideak mantenduko dira. Ikasleek, aukera izango dute deialdiari uko egiteko, horretarako, ebaluazioko proba osatzen duten azterketara edota burutu beharreko zereginak ez aurkeztea nahikoa izango da.
- Azken ebaluazio sistema aukeratu duten ikasleentzat, ohiko deialdiko ebaluazio irizpideak mantenduko dira. Ikasleek, aukera izango dute deialdiari uko egiteko, horretarako, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgaiaren eGelan agertuko dira.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Almeida, A. S. (2004). Historia social, educación y deporte. Lecturas sobre el origen del deporte contemporáneo. Universidad de las Palmas de Gran Canaria.
- American Psychological Association. (2020). Publication manual of the American Psychological Association : the official guide to APA style (7th ed.). American Psychological Association.
- Ayerbe, E. (Ed.). (2001). Deportes y juegos populares vascos: cultura física, juego y desafío. Ostoia.
- Ayerbe, E. (Ed.). (2001). El mundo del deporte: competición, salud y espectáculo. Ostoia.

Calatayud, Francisco. (2002). De la gimnasia de Amorós al deporte de masas (1770-1993): Una aproximación histórica a la educación física y el deporte en España. Ayuntamiento de Valencia.

Capistegui, Fco. Javier, y Leoné, Santiago. (2010). Cien años de relación entre los navarros y el deporte (1901-2001). Eunsa.

Corriente, F. y Montero, J. (2011). Citius, altius, fortius: El libro negro del deporte. Pepitas de calabaza.

Diálogos sobre el deporte (1975-2020) https://inefc.gencat.cat/web/.content/07_observatori/publicacions/estudis/e-book-Dialogos.pdf

Díaz, Jose Antonio. (2008). Euskal kirolaren eta selekzioen historia. Historia del deporte y las selecciones vascas. 2 tomos. Euskal Kirol Federazioen Batasuna. Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

During, B. (1993). La crisis de las pedagogías corporales. Unisport.

Estomba, F. (2016). Competir en años convulsos. Deporte, política y sociedad en Bizkaia durante la II República y la guerra civil. Artgerust.

Fernández Truán, J.C. (2020). Manual de Historia de la Actividad Física y del Deporte. 4 vols. Universidad Pablo de Olavide. (Testu osoa ikusteko: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=876230>)

García García, Jorge. (2015). El origen del deporte femenino en España. Ed. del autor.

Guttmann, A. (1991). Women's Sports: A History. Columbia University Press.

Hargreaves, J. (1994). Sporting females: Critical issues in the history and sociology of women's sports. Routledge.

Iglesias, J. C. (1991-1993). El deporte en España (3 vol). Barcelona, España: Lunweg.

Mandell, R. D. (1988) Historia cultural de deporte. Bellaterra.

Parlebas, P. (1998). Elementos de sociología del deporte. Unisport.

Pastor, J. L. (1997). La Educación Física en España: fuentes y bibliografía básica (1883-1961). Universidad de Alcalá.

Pastor, J. L. (1997). El espacio profesional de la Educación Física en España: génesis y formación (1883-1961). Universidad de Alcalá.

Pastor, J. L. (2000). Definición y desarrollo del espacio profesional de la Educación Física en España (1961-1990). Universidad de Alcalá.

Pereda, M. (2023). Príncipes y esclavos. Una historia social y cultural del deporte. Ariel

Pujadas, X. (Coord) (2011). Atletas y ciudadanos. Historia social del deporte en España 1870-2010. Alianza Editorial.

Rivero, A. (2003). Deporte y Modernización: La actividad física como elemento de transformación social y cultural en España, 1910-1936. Comunidad de Madrid.

Rodríguez López, J. (2000). Historia del deporte. Inde.

Salvador, J. L.(2004). El deporte en Occidente. Historia, cultura y política. Cátedra.

Sánchez García, R. (2020). Las cuatro heridas del deporte moderno. Piedra Papel Libros.

Sentamans, T. (2010). Amazonas mecánicas: engranajes visuales, políticos y culturales.España- Ministerio de Cultura.

Vázquez, B. (1989). La educación física en la educación básica. Gymnos.

Zagalaz, M.L. (2001). Corrientes y tendencias de la educación física. Inde.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Collinet, C. (2000). Les grands courants d'éducation physique en France. PUF.

Christensen, K., Guttmann, A. eta Pfiser (Eds.). (2001). International encyclopedia of women and sports (3 vols.).

MacMillan.

Defrance, J. (1987). L'’excellence corporelle: La formation des activités physiques modernes. 1770-1914. PUF – Revue S.T.A.P.S.

Gleyse, J. (1995). Archéologie de l'’éducation physique au XXe siècle en France. PUF.

Guttmann, A. (1978). From ritual to record: the nature of modern sports. Columbia University Press.

Marsault, C. (2009). Socio-histoire de l'’éducation physique et sportive. PUF.

Rauch, A. (1983) Le souci du corps. Histoire de l'’hygiene en éducation physique. PUF.

Zoro, J. (2002). Images de 150 ans d'’E.P.S. Association des Enseignants d'’EPS.

Aldizkariak

Apunts Educación Física y Deportes.

E.P.S (Éducation Physique et Sports)

Journal of Sport History

Journal of the Phylosophy of Sport.

Lecturas: Educación Física y Deportes (<http://www.efdeportes.com/>)

Materiales para la Historia del Deporte (https://www.upo.es/revistas/index.php/materiales_historia_deporte)

Perspectivas de la Actividad Física y el Deporte

Quel Corps?

Quel Sports?

The International Journal of the History of Sport

Interneteko helbide interesgarriak

Irakasgaiko eGelan ikastaroan aurkeztuko dira

OHARRAK